



009/2019 EBAZPENA, apirilaren 17koa, Funtzio Publikoko sailburuordearena, Administrazio Orokorreko eta bere Erakunde Autonomoetako Administraziooko hainbat lan-poltsa handitzeko deialdietatik datozen langileak integratzeari buruzkoa; lan-poltsak ondorengo hauek dira: Zumarragako Ibaiondo heziketa zentruaren Hezitzaileak, Estatistika-Ikuskatzaileak eta Inkestatzaileak.

Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiak (EHAA, 2006ko ekainaren 13a) EAEko Administrazio Orokorrean eta bere Erakunde Autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz aplikatu beharreko arauak zehazten ditu, eta 4. eta 22. artikuluetan ezartzen du Administrazio horren lan-poltsak zein kasutan eratu eta handitu behar diren.

Administrazio honek beharrezkotzat jo zuen lan-poltsa jakin batzuk handitzea, IVAPEk egindako deialdi zehatzen bitartez, Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakiaren 22.1 a) artikulua arabera. Hala, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2018ko azaroaren 28ko Ebazpenaren bidez, Zumarragako Ibaiondo heziketa zentruaren Hezitzaileen, Estatistika-Ikuskatzaileen eta Inkestatzaileen lan-poltsak handiagotzeko hautaketa-prozesuaren deialdia egin zen.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2019ko apirilaren 15eko Ebazpenaren bidez Zumarragako Ibaiondo heziketa zentruaren Hezitzaileen, Estatistika-Ikuskatzaileen eta Inkestatzaileen lan-poltsak behin betiko osaera argitaratutakoan, eta handitzeko prozesua amaitu ondoren, langile horiek dagokien lan-poltsan integratuko dira, deialdian bertan jasota dauden baldintzen arabera. Beraz, langile horiek indarrean dagoen lan-poltsako azken langilearen ostean sartuko dira, hautaketa-prozesutik atera den hurrenkeran bertan, eta euren puntuazioa zero izanik.

Azkenik, Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabaki horretan xedatuta dagoenaren arabera, Ebazpen hau eta lan-poltsa eguneratuaren zerrenda argitaratuko dira, Administrazioak bere informazioa hedatzeko erabili ohi dituen bitarteko telematikoetan. Hala, lan-poltsari buruzko informazio hori eskuragarri egongo da, interesdunek jakin dezaten.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko 2017ko apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 16. artikulua emandako eskumenaren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz 2006ko maiatzaren 30ean hartutako erabakiaren 4. artikulua arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2019ko apirilaren 15eko Ebazpenean zerrendatutako langileak integratzea gainditu dituzten handitze-prozesuei dagozkien lan-poltsetan, honako irizpide hauen arabera:



a) Langile horiek indarrean dagoen lan-poltsetako azken langilearen ostean sartuko dira, hautaketa-prozesutik atera den hurrenkeran, Ebazpenean jasota dagoenez, eta euren puntuazioa zero izanik.

b) Integratutako langileei gertutasun osoa onartuko zaie mota guztietako eskaintzetarako eta Euskal Autonomia Erkidegoko eremu osorako. Hortaz, edozein iraupenetako eta Edozein Lurralde Historikotako eskaintzak jasoko dituzte. Bi gertutasun-mota horiek interesdunek aldatu ahalko dituzte, Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiaren 6. eta 7. artikuluen arabera.

2. artikulua.- Handitzeko prozesuari dagokion lan-poltsetaren zerrenda berria argitaratzea www.euskadi.eus/bolsastrabajo helbidean. Zerrenda horrek ondorioak izango ditu argitaratzen den egunetik aurrera.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari hilabeteko epean, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren web orriko www.euskadi.eus/bolsastrabajo helbidean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 17a.


FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDIA
ANDRÉS ZEARETA OTAZUA

GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA
Funtzio Publikoko Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO
Viceconsejería de Función Pública